

## "Laster dator eguna..."

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-02-16: 2.

Abestiek badute bere ingurugiro berezia iraun arazteko gauza den zerbait. Nire haurtzaroa eta bertoko sentipen beroa gogarazten didanetako batek honela dio: "... laster dator eguna, laster dator eguna". Bi aldiz iragarria, inor loak har ez zezan! Harrez gero, egun seinalatu honen zai geratu zen nire gogoa. Sinple xamarra da nire adierazpena, baina sinpletasun hau datorkit gaur ere geure haurtzaroko sinesmenaren ikur bezala. Hala sinesten genuen orduan. Baina ez bakarrik orduko haurrok, hau gauza xume bat besterik ez litzateke izango, baizik eta hain haurrak ez ziren gure gurasoak ere, honen bila eskeini baitzuten bere pairadura guztia, askotan bizia bera. Hazi aberats honek isatsi zuen gero herrian bertoko bakardadea, edo atzerrian jasan zutenak euren urtzasuna. Ez dakit gure kasuan Donibane-Garazi eta Donibane Lohitzunen izan genituen hezkuntza eta hizkuntza elkarrekin izateak eman zituen fruituak meritu berezirik duenik; neuk uste dudana, eta zinez, zera da, geuri abesti aberkoi horiekin herriaganako eta hizkuntzaganako maitasun finkoa eman duela. Gaur bizi garen euskaldun helduok eta zaharrok ere bizi dugun garairako gaurko haurrengan hainbeste eragiteko gauza bagina! Zoritxarrez, fede hura galdu edo behintzat hala balitz bezala geratu gara asko eta asko, bi aldiz!, esnatu gabe lozorroan zai, ez gara eta mugitzen, nagiak ateratzeko ez bada behintzat. Noizko dugu Euskadi euskalduna!?